

PuLunPe

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA

171. Zenbakia



Isilik egon beharra
omen genuen ta, hara!
emakumeak ere bai
atera gara plazara.
Ama, amona, ahizpa
izeba eta alaba,
guztiak indartsu gatoz
gizarteko erronkara.
Bakoitza beretik eta
bakoitza bere erara,
baina batera egingo
ez al dugu bidea ba?
Oraina denez iragan
ta geroaren islada,
zirelako gara eta
garelako izango dira





Ttikiena haur eskolaren inguruan

Joan zen urtean Etxalekun kokatua zegoen Ttikiena eskola txikiko Guraso Elkartek, haur eskola berria egitearekin, kontuak itxi ditu, eta ekintzetatik jasotako dirua Imotz eta Basaburuko Udalen artean banatu dute.

Banatutako dirutik Basaburuari 3.333.44 euroko ingresoa egin diote.

Beraiek eskatu bezala, diru hori hurrekin zerikusia duen gasturen batean erabili da, Basaburuaren kasuan Ttikiena Haur Eskola berriko material didaktikoa erosteko erabiliko da.

Basaburuko Udala
2018ko Urtarrila

Basaburuko hiru herrietan zabaldutako fibra sareari buruzko oharra

Jakin dugu auzokide batzuen artean ezinegon dagoela zabaldutako fibra sarearen inguruan, jakin nahiean noiz hasiko den abiadura handiko internet zerbitzua eskaintzen.

Udal honen zerbitzu juridikoak eta egindako bestelako kontsultek argi utzi digute legalki sarea ezin diogula ez esleitu, ezta dohainik utzi ere, zuzenean zein zeharka, ezein operadorari.

Honetarako behar beharrezkoa dugu operatzaile empresa publikoa sortzea, empresa honek zabaltzen ari garen sare hau kudeatu ahal izateko. Noski, udala honetan lanean ari da. Tramiteak hilabeteak beharko ditu, eta kontsultatuko inor ez da ausartu eperik zehazten.

Herritarroi helarazi nahi dizuegu Udal honek, edozeinek baino gehiago, interesa duela ahalik eta laisterren funtsezkotzat daukagun zerbitzu hau martxan jartzeko, eta honetarako ahalegin ekonomiko handia egiten ari gara. Ez izan zalantzarik lanean jarraituko dugula baliabideak optimizatzeke, aukerarik onenak bilatzeko eta ahalik eta azkarren bailara osoan sarea hedatzeko.

Basaburuko Udala
2018ko Urtarrila

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Eurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:

Sareko taldekideez gain, Txurdan.

Koordinatzailea: Lur Gil

Azala: Aritz Gorostiaga

Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U

Lege gordailua: NA 721/93

Inprimategira Urtarrilaren 22an bidalia

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra



HORMARA

19:00

LARRAINTZAR

26

KONTZERTUA



Jorge Sanchez Cuban jaio zen, musika ikasketak modu atodidakta batez egin zituen eta pixkanaka Nueva Trovaren mugimenduan sartuz joan zen. Cubako Santiagoko Musika Zentro Probintzialeko kidea izan zen. Lan bidala batek Espainara eraman zuen eta, gero, Nafarroan finkatu zen. Hainbat disko argitaratu ditu, "Canciones de un Verano", "Soy Guajiro" eta, 2003an, "El Espejo de tu vida" Eva bere bikotearekin.


Erakusketa

Urtarrilaren 9tik 31ra

"Alzando el vuelo" GORKA SOLA



Argazki sorta berri honetan, Gorka Solak berri ere bere unibertsoa eta natura erakusten ditu, hots, altxatu hegaleak zabaldu eta hegan egiten hasi den natura. Erakusten digan mundua behaketaren, itxarotearen eta une aproposa hartzen jakitearen afruitua da.



Bi horietako bat munduko onena da bere diziplinan, genio kreatiboa, bere lanarekin milaka pertsona liluratzen dituen erreferentea.

Bestea Leo Messi da.



OTSAILAREN 2AN,
arratsaldean

Jauntsarasko Apeztegi berriko
ostatuan

"Ni neu Galtzeta" liburuaren
aurkezpena

Joana Ziganda eta Iker Uriberen
eskutik



PULLUNPE 171



2018
EUSKAL HERRIKO
X.MUS
TXAPELKETA

FINAL NAZIONALA LAPURDIN
UZTARITZEN 2018ko MARTXOAREN 10ean
ZAZPI HERRIALDEETAKO FINALAK:
2018ko OTSAILAREN 24an

HERRIA
JAUNTSARATS
EGUNA
2018-01-27
LEKUA
Apeztegi berriko Denda
ORDUA 16:00etan

DATAK:

- LEHEN KANPOKATETA PURE HERRIAN
Gaurak 2018ko urtarrilaren 31 arte.
- HERRIALDEKO KANPOKATETAK
2018ko otsailaren 24an.
- ETXAKO HERRIKO SPALAK LAPURDIN
UZTARITZEN martxoaren 10ean

SARIAK:

- TXAPELDUNAK
Txapela, garai burua,
3.000€ eta nazionaltera* bidala
("KAHIBERA" dena baina)
- TXAPELDUN ORDEAK
Garai burua, 1.500€ eta bi
laguntzat nazionaltera* bidala.
("Kasualak" dena baina)
- 3. BIKOTE SAILKATUA
750€ eta asteburuko
egonaldia lau laguntzat
- 4. BIKOTE SAILKATUA
500€ eta Euskaraz ikasteko
urte osorako 2 matrakula.
- 5. eta 6. era SAILKATURIKO
BIKOTETZAT 250€
- 8. eta 16. era SAILKATURIKO
BIKOTETZAT 100€
- HERRIALDEKO FINAL ETAN
Txapela, garai burua, asteburuko
egonaldia, bukatu eta aldiak...
- PARTE HARTZEK BIKOTETZAT
Ongarria parte hartze onakentzat.

OHARRAK:
Eusko Herria Mus Federazioak txapelketaren
antolatzailea da. Hainbat txapelketa antolatzen ditu.
Txapelketaren arauak eta baldintzak honakoak dira:
www.ehmus.eus

www.ehmus.eus

Laguntzaileak: **Babesleak:**

OTZAILAREN 24

20€

2018-01-27

16:00etan



**EMAKUMEEN ARTEKO
LEHEN ESKUZKO PILOTA
TXAPELKETA**

15URTEtik GORA, BIKOTEKA
Pilota Mixtaren (kadetea)
Lataneko frontoian (lehen)
Ostiraleko arratsaldeko 19.00
Aguntatzeko helburu: 659 443 664 (Zepelo)
659 664 329 (Zapa)

URTARRILAK 29 BAINO LEHEN

Antolatzailea da: Basaburu eta Imozko Kirol Batzordeak

PALETA GOMA ETA FRONTENIS TXAPELKETA

Latasako frontoian
Frontenis emakumentzako (bi maila)
Paleta Goma gizonentzako (bi maila)

Apuntatzeko epea ; urtarrilak 29 arte
Zapa : 680 874 632
Zepelo: 659 443 664

Basaburu eta Imozko Kirol Batzordeak antolatuta

**INSCRIPCIONES ABIERTAS
IZEN-EMATEA IREKITA**

www.nafarroaxtrem.com

NAFARROA XTREM 3a Edición

28/04/2018
Zubiri

NX68 NX33 NX21

"Ostiral kulturalak antolatzea gustatuko litzaizuke? Kontzertuak, hitzaldiak, antzerkiak...
ZATOK DINAMIZAZIO BATZORDERA!
Hilabeteko lehengo ASTEARTEETAN biltzen gara arratsaldeko 17:00etan gizarte etxean. Anima zaitez!
Email bidez informazioa jasotzeko: kulturmuji@gmail.com"

2017ko ZOZKETA MUNDIALEKO SARI ZERRENDA

Zbkia	Izena	Nork emana	Sartutua	Izena	Abizena	Herria
70	Esneki sorta	Postres Tradicionales	19.919	Roberto	Pascal	Aizarotz
1	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	20.710	Ana Mari	Exegia	Aizarotz
16	Eskualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza	21.803	Juanillo	Alonso	Aizarotz
126	Esku-lana	Ana Urteaga	17.096	Mari Jose	Barberena	Alkotz
7	10€ko erosketa bonoa	Apeztegiherria	17.127	Nerea	Latasa	Alkotz
19	10€ko erosketa bonoa	Apeztegiherria	1.535	Zuriñe	Garcia	Antsoain
106	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	17.438	Maritxu	Larretxea	Arantzaz
127	Bi lagunendako bazkari bonoa Ultzamako bentan	Ultzamako bentak	14.917	Juan	Iraizoz	Arizua
112	Latxa motako axuri eder	Ametza	14.962	Amato	Iraizoz	Arizua
108	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	13.568	Tania	Arriaga	Arastegi
121	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	5.526	Martina	Exenike	Arraitz
118	Eskualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza	5.541	Eusebia	Exenike	Arraitz
132	Kosmetika sorta	Aurum cosmetic	21.495	Josune	Ripalda	Arrarats
12	zerri gizen	Ametza	18.605	Piña	Usandiaga	Astigarra
99	Latxa motako axuri eder	Ametza	14.180	Noelia	Teletxea	Atarrabia
69	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	17.333	Patxi	Oroz	Atarrabia
6	Esneki sorta	Goshua	17.950	Diego	Varela	Atarrabia
66	Eskualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza	3.760	Nerea	Zabala	Ataun
125	Latxa motako axuri eder	Ametza	2.227	Idoia	Yaben	Auza
59	Bi lagunendako bazkari bonoa Beuntzako ostatuan	Ametza	10.349	Marian	Igartua	Auza
33	Bi lagunendako bazkari bonoa Iraizozko ostatuan	Ametza	11.656	Kontxi	Zubieta	Auza
68	Eskualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza	15.192	Joana	Berasain	Auza
90	Asteburuetako bidai bonoa	Ametza	16.812	Markos	Garjon	Barañain
47	Latxa motako axuri eder	Ametza	18.341	Lanabe	kultur elkarte	Barañain
17	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	10.092	Beñat	Dorai	Beramendi
30	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	2.012	Elena	Alcasena	Beratsain
100	Esku-lana	Martzelo Beloki	22.008	Luis	Gorosabel	Bergara
50	zerri gizen	Ametza	3.579	Jesus Mari	Arano	Beruete
79	Eskualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza	3.592	Masha	Arano	Beruete
77	Asteburuetako bidai bonoa	Ametza	19.655	Simon	Juanbeltz	Beruete
40	Eskualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza	19.702	Jesus Manuel	Arangoa	Beruete
52	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	19.769	Susana	Sanchez	Beruete
23	landa etxeetarako bonoa Kaañoko borda	Kaaño-Ametza	5.382	Juan	Erbiti	Beuntza

Saskittoa*:
Gazta taula, Esnea, Yogurrak,
Zapia, Gaztatxoak, Sagardoa,
Gazta zatia, Ezlia, Urrak, ...

Zenbait laguntzaileak**:
Dorrea Gaztandegia, Lacturale,
Belisa, Behetxonea, Joxe Manuel,
Arantxa, Isabel Telleria, Loperena,
Itziar, Puri, Ametza

2017ko ZOZKETA MUNDIALEKO SARI ZERRENDA

Zbkia	Izena	Nork emana	Sartutalzena	Abizena	Herria
15	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	5.617	Iñaki	Burlata
64	Zapata pareia	Xabi Iturrioz	10.592	Pontxi	Burlata
48	Ile apaindegiko bonoa Josune Ripalda	Josune Ripalda	12.789	Pili	Burutain
109	Kosmetika sorta	Ana Egozkue	15.807	Gemma	Donostia
31	Esneki sorta	Goshua	21.317	Karmen	Donostia
3	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	13.186	Jesus Mari	Egillor
74	Ile apaindegiko bonoa Rakel Lizasokoa	Rakel Lizasokoa	11.881	Nerea	Elitso
117	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	20.386	Emilio	Eratsun
63	zerri gizen	Ametza	20.628	Pakita	Erbiti
42	Esualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza	2.141	Ohiane	Eritzegoiti
45	10€ko erosketa bonoa	Apeztegiherria	13.009	Javier	Eritzegoiti
55	Esualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza	13.544	Pablo	Eritzegoiti
78	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	2.777	Eduardo	Eriipa
51	Esku-lana	Anjel Beuntza	10.826	Mirentxu	Eriipa
4	Esualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza	10.830	Mirentxu	Eriipa
114	Bi lagunendako bazkari bonoa Udabeko bentan	Udabeko bentak	11.343	Mirentxu	Eriipa
56	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	5.054	Nati	Etsain
43	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	16.218	Agustin	Etsain
87	Kosmetika sorta	Aurum kosmetik	10.838	Kati	Etulain
75	Bi lagunendako bazkari bonoa lgoako ostatuan	Ametza	6.047	Javier	Etaleku
27	Esualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza	23.898	Idoia	Formigal
97	Esualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza	15.162	Etxeberri	Garazi
22	Tarta	Mentxu Pikabea	2.782	Saioa	Gartzain
38	Esku-lana	Pako Orbegozo	2.051	Elene	Gasteiz
44	Esneki sorta	Goshua	13.164	Alfredo	Gelbentzu
8	Bi lagunendako bazkari bonoa Arraizko ostatuan	Ametza	10.725	Javi	Gendulain
57	Esneki sorta	Postres Tradicionales	21.141	Ignacio	Golaratz
84	Esualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza	4.581	Rosario	Huarte Arakil
11	landa etxeetarako bonoa Flor Vida	Flor de vida-Ametza	18.215	Begoña	Igoa
14	Esualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza	20.776	Migel	Igoa
26	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	20.783	Arantxa	Igoa
67	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	21.845	Julen	Ihaben
120	Esualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza	23.132	Martin	Ihaben

Zenbait laguntzaileak**:
Dorrea Gaztandegia, Lacturale,
Belisa, Behetxonea, Joxe Manuel,
Arantxa, Isabel Telleria, Loperena,
Itziar, Puri, Ametza

Saskittoa*:
Gazta taula, Esnea, Yogurrak,
Zapia, Gaztatxoak, Sagardoak,
Gazta zatia, Ezlia, Urrak, ...



2017ko ZOKKETA MUNDIALEKO SARI ZERRENDA

Zbkia	Izena	Nork emana	Sartutua	Izena	Abizena	Herria
37	zerri gizen	Ametza		19.561 Banessa	Sarasola	Iheltz
29	Eskualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza		10.793 Jesus	Ezkurra	Ilarregi
92	Eskualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza		11.992 Silbestre	Ramonedra	Ilarregi
131	Kosmetika sorta	Aurum kosmetik		2.511 Mari Jose	Garde	Iraizotz
61	Ile apaindegiko bonoa Elena Berasain	Elena Berasain		5.553 Mari Cruz	Iraizotz	Iraizotz
103	Asteburuetako bidai bonoa	Ametza		10.074 Paula	Elizondo	Iraizotz
53	Eskualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza		15.403 Gorka	Antolin	Iraizotz
18	Esneki sorta	Goshua		15.457 Ines	Garcia	Iraizotz
94	Eskualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza		17.725 Javier	Galain	Iraizotz
111	Bi lagunendako bazkari bonoa Lantzko ostatuan	Lantzko ostatuak		17.755 Antonio	Gorosti	Iraizotz
36	Behor gaineen txangoa	Igoako Bengoetxeko borda		2.093 Juan	Alcasena	Iruña
85	Bi lagunendako bazkari bonua Auzako ostatuan	Ametza		3.405 Feli	Aleman	Iruña
49	Behor gaineen txangoa	Igoako Bengoetxeko borda		3.574 Jaouad	Morad	Iruña
91	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**		3.625 Jose Luis	De Migel	Iruña
32	10€ko erosketa bonoa	Apeztegiberria		3.713 Aritz	Gomara	Iruña
13	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**		3.985 Fermintxo	Zabalza	Iruña
2	Eskualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza		4.965 Patxi	Ozkoidi	Iruña
104	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**		13.595 Pilar	Azkarate	Iruña
86	Latxa motako axuri eder	Ametza		13.937 Rosa	Gofi	Iruña
80	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**		16.882 Fermin	Exaniz	Iruña
102	zerri gizen	Ametza		18.652 Lucia	Cartago	Iruña
107	Eskualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza		18.936 Karnele	Igoa	Iruña
122	Kosmetika sorta	Kosmetika sorta		20.959 Maitane	Azkoiti	Iruña
88	Bi lagunendako bazkari bonoa Alkozko ostatuan	Ametza		21.311 Maku	Belez	Iruña
82	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**		22.831 Marta	Zazpi	Iruña
89	zerri gizen	Ametza		23.999 Mati	Mendiburu	Iruña
124	Bi lagunendako bazkari bonoa Berueteko ostatuan	Berueteko ostatuak		19.941 Santiago	Arraztoa	Iruña
116	Zurezko artelana	Kike Ardaiz		3.854 Aintzane	Sarasola	Iruña
60	Latxa motako axuri eder	Ametza		3.875 Lorea	Gonzalez	Iruña
129	Aitortza aulkia	Loli Aleman		4.076 Iker	Uribe	Iruña
130	Bi lagunendako bazkari bonoa Exalekuko ostatuan	Ametza		21.242 Tere	Yeregi	Iruña
101	Bi lagunendako bazkari bonoa Larraintzako ostatuan	Larraintzako ostatuak		21.266 Adela	Cruz	Iruña
128	zerri gizen	Ametza		21.570 Iker	Ansorena	Iruña

Zenbait laguntzaileak**:

Dorrea Gaztandegia, Lacturale,
Belisa, Behetxonea, Joxe Manuel,
Aranitza, Isabel Telleria, Loperena,
Itziar, Puri, Ametza

Saskittoa*:

Gazta taula, Esnea, Yogurrak,
Zapia, Gaztatoak, Sagardoa,
Gazta zatia, Eztia, Urrak, ...

2017ko ZOZKETA MUNDIALEKO SARI ZERRENDA

Zbkia	Izena	Nork emana	SartuaIzena	Abizena	Herria
58	20€ko erosketa bonoa	Auzako harategia	21.589 Ekiñe	Ansorena	Itsaso
123	Esualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza	21.644 Edurne	Arrazubi	Itsaso
20	Bi lagunendako bazkari bonua Benta Migelen	Ametza	3.726 Edurne	Urbistondo	Iza
76	zerri gizen	Ametza	13.924 Ricardo	Berruezo	Kaparroso
41	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	14.115 Patricia	Monente	Kaparroso
21	Latxa motako axuri eder	Ametza	20.901 Pedro	Angulo	Karrantza
54	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	14.620 David	Larrayoz	Lantz
24	zerri gizen	Ametza	17.244 Enrike	Olkoz	Lantz
10	Tarta	Mentxu Pikabea	10.388 Jesus	Oskoz	Laraintzar
62	Bi lagunendako bazkari bonoa Apeztegi berrian	Ametza	23.673 Belen	Gomez	Lataso
83	Esneki sorta	Postres Tradicionales	22.144 Pedro Mari	Gofi	Lekaroz
5	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	13.945 Mikel	Lizarraga	Litzoain
96	Esneki sorta	Postres Tradicionales	16.389 Gabriel	Lera	Lizaso
25	Esku-lana	Juan Mari Gaskue	16.753 Ana	Gofi	Lizaso
9	Latxa motako axuri eder	Ametza	21.808 Edurne	Gerendiain	Lizaso
71	20€ko erosketa bonua	Auzako harategia	3.866 Lola	Lekunberri	Madril
65	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	4.203 Enaitz	Beloki	Muskitz
115	zerri gizen	Ametza	19.293 Aritz	Garbisu	Muskitz
34	Latxa motako axuri eder	Ametza	13.632 Alfredo	Nuin	Nuin
105	Esualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza	20.313 Boni	Noain	Ola
39	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	14.873 Aitor	Iraiza	Olague
119	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	15.409 Iñaki	Ostiz	Olano
113	Esku-lana	Martzelo Beloki	18.901 Maria Pilar	Astiz	Olazti
81	Esualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza	10.427 Juanjo	Lizarraga	Ordizia
93	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	21.830 Javier	Oiz	Orokiet
95	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	5.861 Gotzon	Perez de Namclares	Ostiz
73	Latxa motako axuri eder	Ametza	23.832 Leire	Mendiburu	Sorauren
28	Saskittoa*	Zenbait laguntzaileak**	22.234 Unai	Loidi	Udabe
98	Bi lagunendako bazkari bonoa Orokietako ostatuan	Orokietako ostatuak	16.145 Iñaki	Ezkurra	Urritzola
46	Bi lagunendako bazkari bonoa Eltzaburuko ostatuan	Ametza	20.730 Aimar	Retegi	Urritzola
72	Bi lagunendako bazkari bonoa Goldarazko Etxeberriin	Ametza	20.720 Izaskun	Alberdi	Zarautz
110	Esualdeko gaztandegiko ardi gazta	Ametza	16.258 Edurne	Etxeberria	Zenotz
35	Ile apaindegiko bonoa Cristina Aizarotz	Cristina Aizarotz	5.652 Xexu	Villaro	Ziaurritz

Zenbait laguntzaileak**:
 Dorrea Gaztandegia, Lacturale,
 Belisa, Behetxonea, Joxe Manuel,
 Arantxa, Isabel Telleria, Loperena,
 Itziar, Puri, Ametza

Saskittoa*:
 Gazta taula, Esnea, Yogurrak,
 Zapia, Gaztatoak, Sagardoa,
 Gazta zatia, Eztia, Urrak, ...

Osasunbideak euskara profilik gabeko lanpostua eskaini du Basaburuko osasun etxean

Administrazioan Euskaraz Taldeak jakinarazi digunez, Nafarroako hainbat herritan (horietako batzuk eremu euskaldunean daudenak) Osasunbideak euskara eskakizunik gabeko mediku eta pediatrik kontratatzeko deialdia eskaini du, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu gabe. Horrek aukera eman dio azaroan onartutako euskararen dekretu berria ez betetzeko. Lanpostuetako bat Basaburuko osasun etxean eskaini du.

Esther Lakasta Basaburuko alkateak esan digu Udaren eskumenetatik at dagoen gaia dela, “Basaburua UEMaren barnean dago eta euskara profila bermatzen du bere langile publikoetan, baina osasun etxea Nafarroako Gobernuaren eskumena da. Aurrekoan gauza bera gertatu zen, eta kexa bat bideratu genion Gobernuari, hori da tamalez egin dezakegun bakarra.”

Ezintasun hori ikusita, mediku eta pediatria euskaldunak eskatzeko dinamika bati erreparatu diogu,



Arrotxapean bi urte martxan daraman. Aspaldiko eskakizuna da Arrotxapeako osasun etxean euskaraz artatua izateko eskakizuna, eta mobilizazio ugari egin dituzte. Dinamikaren parte eta Euskal Herrian Euskaraz taldeko kide den Nestor Estebanekin solas egin dugu:

Nestor Esteban, EHEko kidea



“2016ko apirilean hasi ginen osasun etxean mediku eta pediatria aldaketa eskatzen, euskaldunak izatea nahi genuelako. Denbora gutxira osasun etxeko zuzendariaren erantzuna jaso genuen, behartuta ez daudela esanez, eta Gobernuari edo Parlamentuari zegokiola egin beharreko lege aldaketak egitea.

Horrela, Nafarroako Gobernuari bilera eskaera egin genion, baina ez genuen erantzunik jaso, eta Gobernua sustengatzen duten alderdiengana joan ginen bilera eske. Baina ez genuen erantzunik jaso; hori publiko egin genuen eta azkenean EH Bilduk jaso gintuen, baina Gobernuak kasurik ez. Horren

aurrean osasun etxea okupatzea erabaki genuen, eta Osasunbideako zuzendaria etortzea lortu genuen. Esan ziguten eskubidea gurela euskaraz egiteko baina eremu mistoan egonik, administrazioa ez dagoela euskaraz egitera behartua.

Horren aurrean mobilizazioekin jarraitzea erabaki genuen: babesak eta sinadurak biltzea, osasun etxea inguratu, manifestazioa, ikatza ematea... baina oraindik ere ez dugu mediku eta pediatria euskaldunik.

Euskararen dekretua onartu eta gero ere mediku eta pediatria erdaldunak kontratatzen jarraitu dute, orain onartu delako baina indarrean hemendik urtebetera sartuko da.

Aukera zuten azken kontratazioan euskara profila sartzeko eta ez dute nahi izan.”





Denda Gratix Muskitzen



Muskizko Itsasonea edukiz betetzen ari da. Oraingoan Denda Gratix ekimenaren txanda izan da, Basaburuan orain arte egin izan dutena, eta Imotzen ideia hori hartu nahi izan dute.

Muskizko Itsasonean jarri dute gunea, baina zer da Denda Gratix? Antolatzaileek diotenez, “gune antikapitalista bat da, gaur egungo kontsumo eta merkatu ereduen aurka doana. Beste era batera esanda, bizi dugun joera kontsumistari aurre egiten diona.”

Bertan dagoen oro doakoa da, eta ez dago ez dirurik eta ez trukerik tarteko. Deia egiten dute norberak erabiltzen ez duen guztia uzteko, erabilgarri dagoen bitartean, eta aldi berean, erabiliko duguna hartzeko aukera izanen dugu.

Urtarrileko bigarren asteburuan ireki zuten lehen aldiz, eta aurrerantzean igande eguerditan egonen da irekita denda, 12:00etatik 14:00etara. Gune autogestionatua izanik, arduraz zaindu eta txukun mantentzeko deia egiten dute.

Ziaurritzko antzezleak Nafarroan barna



Joan zen urtean Ziaurritzen antzerkia estreinatu zuen boskote ziaurritzarrak, Mikel Gerendiainen zuzendaritzapean. “La revolución de los geranios azules” zuen izena ikuskizunak, eta harrera ezin hobea izan zuen. Nafarmentzekoa da Mikelen lehen aldia zela gidoia egiten.

Antzerkia ikusita, lagun batzuek haien herrietara eraman nahi izan dute, eta entseatzen jarri dira berriz ziaurritzarrak. Lehenengo emanaldia Bidaurretan egin dute, baina gehiago ere egingen dituzte.

Imozko eguberriak ekimenez beteak



Imotzen ez dira etxean geratzekoak, eta bizilagunak elkartzeko ekimenak antolatu zituzten eguberrietan: San Bartolome mendira igoera, zirko tailerra, ludoteka, txikiendako pelikula eta argazkian agertzen den “Ni neu Galtzeta” liburuaren aurkezpena besteak beste.



Ramon Ilarregui Iriarte, Itsasoko Errandoneko **amerikanoa** hil da

Joan den abenduaren 5ean hil zen Ramon Ilarregi, Itsasoko Errandoneko amerikanoa. Kaliforniako Madera hirian hil da, 87 urtetan, alarguna eta semea utzi ditu.

1955. urtean bere osaba Migelek, Kalifornian zenak, deitu eta abiatu zen Amerika aldera artzain. Eta geroztik toki beretsuan bizi izan zen. Lehen bost urtetan artzain, gero bizkar hezurretik operatu behar izan zuen eta artzain lana utzi behar eta lan leunagoetan ibili zen. Hainbat lanetan ibilitakoa dugu, kamioi bat erosi eta hango arrantxoetara alfalfa eramaten edo bertako arrantxari batzuendako beste hainbat lanetan. Laguna Irrigation District-endako ere aritu zen lanean eta bere lehengusina zuen Clarence Ilarregirentzat ere bai. Hori bai, beti Fresnoko hurbilean. Ez zen asko mugitu alderdi hartatik.

Baina zerbaitengatik ezaguna izan bada, haragi errea prestatzeko asmatu zuen saltsa batengatik izan zen. Basque Sauce edo "Euskal Saltsa" haragi errea prestatzeko produktua asmatu zuen 1980. urtean eta hori eginez eta salduz bizi izan da. Amerikarrak haragi errearen oso zaileak dira, barbakoa eta horrelakoetan prestatzen dutelarik eta Ramonek arrakasta handia izan zuen bere asmakizunarekin. Haragia prestat-



zeko saltsa ezeze, arraina prestatzekoa ere jarri zuen salgai Estatu Batuetako ia Estatu guzietan.

50 urte zituen enpresa hori sortzerako eta horrela ateratu zuen bizitza, 2015. urtean, 85 urtetan, enpresa saldu zuen artio. Michael semeak enpresa beste era batera eraman nahi eta aita ez izan iritzi berekoa. Aitak erretiroa hartu eta enpresa saldu zuten.

Familia:

1962. urtean ezkondu zen. Andretzat euskaldun bat hartu zuen, Dora Larrea, eta seme bat izan zuten Michael. Alargundu ondoren, berriz ezkondu zen, Rebecca Lindholm-ekin. Enpresa saldu ondoren, Michael orain hain modan dagoen entrenatzaile pertsonala bezala ari da lanean.

Sortetxea beti izan zuen gogoan eta maiz samar etortzen zen Itsasora bertan zituen ahaideen bisitatzerara.

Goian bego Basque Sauce asmatu zuen gure herrikide Ramon zena.

Iñaki Rekondo, ameriketan bizi den basaburuarra, Ramonen inguruan galdetuta:

"Ezagutu behar ez nin ba! Azken 3-4 urte hotan ez nin ikusten, beno Los Bañostako picniken han izaten huan urtero. Fresnoko Basque Hotelean eta Santa Fen ongi ezagune huan. Beutarrak ta beste euskaldun franko han biltzen hittun musean ta mokadu eittea"

OHARRAK:

Ramon, 1930eko otsailaren 23an jaio zen, gaueko 8,30ean. Gurasoak Juan Ilarregi Iriarte, Errandonekoa, eta Maimil (Maria Micaela) Aldaregia Iaben, Etxalekuko Apezenekoa, zituen.

Argazkiko botila Ramonek asmatutako saltsarena da, sanferminetako irudi bat agertzen da bertan.





Olentzero joan zaigu



Herri ugartan ospatu dute Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. Jauntsarasko eta Larrain-tzarko ikastetxeak izan ziren lehenak bikotea jasotzen, eta hurrek kantuan egin zieten harrera.

Eskualde guztiko herrietan ere harrera egin zieten Eguberri egunaren bezperan. Aritzun, Olaguen, Ziaurritzen, Aroztegin, Alkotzen, Iraizotzen, Eltzaburun, Jauntsaratsen, Latasan... Eta Lizason errege magoen etorrera ere ospatu zuten.

“Ultzamako etxeak” liburua salgai



Salgai da Lurdes Irai-zotzen liburu berria, abenduaren erdialdean aurkeztu zuen Irai-zozko Juanzorena etxea. Ultzamako etxean bizitakoen genealogia zabala dakar liburuak. Ultzamako hainbat ostatutan aurki dezakezue 30 eurotan.

Hasi dira gure inauteriak



Berueten eta Itsason inauteriak izan ditugu jada. Urta-rrilaren bigarren asteburuan izan ziren Berueten, eta hurrengoan Itsason.

Herriko gazteak jantzi koloretsuekin moztaratu ziren, eta Berueten bazkari ederra egitearekin batera parranda pixka bat egiteko ere probestu zuten. Eta behin Basaburuko inauteri hauek igarota, gainontzeko herrien txanda iritsi da.

Gurean ospetsuenak, nola ez, Lanzkoak dira. Prestaketa lanetan denbora daramate herrian, eta dena prest izanen dute urteko ekitaldirik garrantzitsuena iristeko. garrantzitsuena eta bisitari gehien ekartzen dituen. Oraindik ere duela bi urteko gertaerak presente, normaltasunez igarotzeko esperantza dute.

Otsailaren 11n hasiko da aurtengoan, inauteri txikiarekin. Eta egun handia 13an izanen da, asteartean. Gogoratu ordutegi zehatzik ez dagoela, hamaiketakoaren ondoren izaten da kalejira.

Iritzia: “Ilusioa”

Aieteko konferentzia hartatik zazpi urte pasatu dira jada, eta azken urteotan nabari zen neke bat Autonomia kaleko airean. Orduan sinisten genuen denbora gutxiko kontua izanen zela: euskal presoak etxeratu edo behintzat

hurbiltzeko pare bat urtarrez mobilizatzea aski izanen zela, eta urte gutxian, dena konponduta. Ez zen hala izan, ordea. Are, ondotik etorri zen Herriraren kontrako sarekada, eta kolosala izan behar zuena tantaz tanta txikituz joan zen, baita hotz eta euri, txikituz ere, Bilbora egun-pasa joateko ilusioa.

EAJk egoera larri baten aitzinean manifestazioarekin bat egin izanak berriro ekarri zuen esperantza bat, baina hurrengoetan berriz erritual baten gisan segitu genuen Sarearen deialdiari kasu egiten. Koloretako argi eta guzi, baina pre-

soak Euskal Herrira now ekartzeko esperantza gutxiarekin, nik uste; soilik hatz erakuslez injustizia salatzen asmoz.

Aurtengoa ezberdina iruditua zitzaidan. Aterkien artean bidea ezin zabaldurik, jendetza sumatzen zen kaleetan berriro, manifestazioaren kale paraleloetan aitzina egiten saiatzen; bazirudien bazela hor zerbait. Eta euskal komunikabideek ere nabarmendu dute: «Azken urteotako jendetsuena», BERRIAK. Ez dakit motxiladun umeen eta Ur Handitan-en arrakastaren fenomenoak izan den, ala, agian, egunean bertan

jasotako albistearena: Euskal Herritik hurbilen dauden espetxeetara ekarriko dituela presoak Frantziako Justiziak datozen asteetan. Sinestezina egin zitzaigun gehienoi albistea, aitzinetik jakin arren bide bat irekia zutela bakegileek. Ora in errana ikusteko zain gaude: beteko ote duten benetan hurbiltzearena. Pixka bat mesfidati, baina berriro, ilusioz. Eta harri bat mugituta, bertze aldekoa mugitzeko indarra itzuli izan baligute bezala da, horretarako prest eta gai bagina bezala. Eta jarri gara, berriro, Madrilera begira. Ea ez diguten ilusioa lapurtzen.



Maddi Ane Txoperena Iribarren
BERRIA egunkarian



Emakumeen esku **pilota** plazara

Lehen aldia izanen da eskualdean emakumezkoen esku pilota txapelketa antolatzen dela



Imozko eta Basaburuko kirol batzordeak antolaturik otsailean hasiko da txapelketa. Ostiralero izanen dira jardunaldiak, eta Latasako pilotalekuan izanen dira partidak

Bestalde, urtero egiten den beste txapelketa ere hasiko da segituan. Gizonezkoen pala txapelketa eta emakumezkoen fronteniskoa hain zuzen ere. Kirol bakoitzean bi maila izanen dira, bakoitza eroso sentitzen dena aukeratzeko.

Hiru txapelketa hauetan izena emateko epea urtarrilaren 29an amaituko da, eta behin zerrenda osoa izanda hasiko dira txapelketak. Gartzarongo pilota goxua txapelketa amaituta, frontoietako kirolak jarraitzen du gurean!

“Herri txiki **infernu** handi” Ultzamara dator




Basaburukoaren eta Imozkoaren ostean, Ultzaman grabatuko dute ETB1eko saioa.

Herriz herri ibiltzen dira Mikel Pagadi eta Zuhaitz Gurrutxaga aurkezleak, gure herrietako bizimodua, xelebrekeriak eta kontakizunak entzuten.

Ultzaman otsailean grabatuko dute, eta aurrerago egingen dute emanaldi publikoa Sebastian Lizaso bertsolariarekin, telebistan eman baino lehenago..

Iñaki **Beorleguiren** bigarren erakusketa

Jauntsarasko Apeztegiberriko bentan ikusgai izanen dira etxalekuarraren margoak



Aurreko hilabete batean elkarriketa egin genion Iñaki Beorleguiri Pulunpen. Mexikarra da bera, eta Etxalekun bizi da. Muskizko Itsasonean ikusgai izan ziren berak egindako margoak, eta Apeztegiberrin egonen dira orain.

Bereziki naturarekin zerikusia duten artelanak dira, baina sorpresa politen bat ere badago.



Irudi batean





Larraintzarren irabazi ezinik jarraitzen du Peio Etxeberriak

Promozio mailako bigarren partida zegoen jokoan, eta azken momentuan galdu zuen Peiok



pilotalekua lepo bete bazen, urtarri-laren 12koan ez zen gutxiago izan, eta eserlekuren bat libre bazegoen ere, ia goraino bete ziren harmailak.

Dena den, Larraintzarren jokatu-tako bi alditan galdu egin du Peiok. Binakako bigarren mailako txapelketa jokatzeko ari da Peio Jon jaunarena leitzarrarekin batera, eta lehenbiziko jardunaldian Errandonea eta Tolosaren aurka irabazi bazuten ere, bigarrena galdu egin zuten, Dario eta Irustaren aurka.

Atzean dominatu egin zuen Jon Jaunarenak, baina Peiok ez zuen asmatu tantoa amaitzeko orduan, eta behar baino pilota gehiago galdu zituen. Erraz irabazten zihoazen (10-18), baina Dariok eta Irustak erasoari ekin zioten eta presio horri ezin izan zion eutsi bikote na-

fararak. 22-20 amaitu zen partida, Dario eta Irustaren alde.

Mikel Idoate partida ikusten ari zela probestuz Peioren inguruan galdetu genion. Gaitasuna ikusten dio Mikelek Peiori, baina Larraintzarren tantoa amaitzeko zailtasunak izan zituela aipatu zigun. Dena den, pilotari ohiak dio oraindik goiz dela baloraziorik egiteko eta promozio mailako binakako txapelketa honetan zer ematen duen ikusi beharko dela.

Ultzama frontoiak lehenengo mailako partida ere izan zuen, Bengoetxea VI.a-Larunbe eta Irribarra -Merino II.a aurrez aurre izan zituena. Bigarren hauen garaipen nahiko garbia izan zen, baina pilotaz gozatu zuten ikusleek.

Hauze, beraz, Larraintzarko partidaren kronika, jarraipena egiten diogu Peioren ibilbideari eta binakako txapelketari. Animo!

Mikel Idoate:
"Peiori kosta egin zaio tantoa bukatzea. Eta Dario ausartago aritu da partidu amaieran"

Denbora laburrean bigarren egun handi bat bizi izan zuen Larraintzarko Ultzama frontoiak. Azaroan Peio Etxeberriaren debuta izan genuen, eta egun hartan

Presoen aldeko konpromisoa berretsi dute


Urtero data honen bueltan presoen aldeko ekimenak biderkatu egiten dira, eta gurean ere euskal preso politikoen etxeratzearen aldeko aldarrikapenak izan dira egunotan.

Basaburuan presoen askatasuna eskatzeko kotxe karabana egin zuten dozena bat inguru bizilagunek, herriz herri aldarrikapena eramanez. Eta urtarrilaren 13an Bilbon egin zen manifestazioan izan ziren

eskualdeko hainbat lagun. Autobus oso bat bete egin zen Ultzama, Atetz, Basaburua eta Imozko bizilagunek osatuta.

Azken urteotan egindakoen artean jendetsuena izan zen aurtengo Bilboko manifestazio hau, eta bereziki motxiladun haurren egoera salatu da (gurasoak bisitatzerako espetxera joan behar izaten duten haurrak). Gurean ere motxiladun haurren bat izan dugu azkenaldian.







Sasuan bertsolaria (Eugi-Aritzu-Auza) (III)

Aitzineko artikuluan aipatu genuen bezala, 1910. urtean Antonio Ziaurritzi berriz ere tokiz aldatzera tokatu zitzaion eta Burutaina joateko asmotan ere ibili zen noski, Erroldan bera eta familia apuntatu baitziren baina "ausente" bezala eta Suarben, berriz, "transeunte" bezala. Honek esan nahi du Suarben zirela bizi, behin-behinean edo.



Hona hemen Suarbe. Jendeak Suberbe erraten zion eta oraindik ere zenbaitek hala dio. Polloneko edo Juston borda azpiko aldetik ateratakoa da orain egun batzuk.

Ultzamako aldia

Eta bai, Suarbeko *Polloneko* bordara etorri ziren denak 1910eko urtarilaren lehenean, baita Jose Juan Jaunarena eta bere familia ere. Hau da, aitagarreba eta suhia, beren familiekin.

Aurki bere arreba Martinak ekarraraziko zituen, Suarbeko borda batean bizi baitzen joan zen hamar urtean, hau ere Aritzutik etorria.

Bere bertsoetan ageri denez, Aritzutik etorri zen, horrek esan nahi du Burutainen ez zirela bizitzen jarri ere. Eta bere suhia ere hona ekarri zuen, Aritzuko *Etxolaxarretik*.

Hamar urte egin zituen *Polloneko* bordan eta behartuta edo aukera hobea opatu zuelako, Alkotza joan zen 1920ko urtarilaren lehenean.

Alkotzen *Martixenean* bizitu ziren. Garai hartan *Martixeneko* familiaz gain, beste bi ere bizitu izan ziren etxe honetan: *Iraizotz-Landiribartarrak* alde batetik eta *Ziaurritzarrak* bestetik, aitagarreba eta suhia, biak beren familiekin. Ziaurritz eta Jaunarenatarrek, denak familia batean, sukaldea beheitian zuten eta logelak eta gainerakoak goiti, lehen pisuan, dena karretera aldetik (1)

Alkotzen berean jaioko zitzaizkion hiru biloba, eta hilen andrea, Blasa, 1928an. Alkotzen ere nekazal-goan ariko zen. Errenta motxa zen ordaintzen zutena, baina hala ere lan franko aurea ateratzeko familia. Hori bai, suhia oihas lanetan aritzen zen.

Alkotzen *Etxeberriko* Loiditarrekin adiskidantza handia izan zuen eta bertan ezagutu zuen Aita Donostia famatua ere.

Etxeberrian jaso zizkion musikari handi hark *Sasuani* bi kantu: *Sagarraren adarraren* eta *Ardoaren bentajak*, biak ere oso ezagunak Euskal Herrian, baina Sasuanek Eugin ikasi bezala kantatu zizkion eta Aita Donostiak idatzi. Hori 1931. urtean izan zen, Auzan bizi zela.

Eta Alkotzik noiz etorri ziren Auzako *Alkomorro-ra*? Aurki, 1930eko hasieran, borda berri berria zen. Hemen jaioko zen etxeko bere azken biloba, Angela Jaunarena Ziaurritz, 1931. urtean. Denetara etxean 10 biloba izan zituen. Gaur egun, Angela da bizi den bakarra.

1941eko urriaren 1ean hil zen *Alkomorron*; bronkitis kronikoa zuen, bere bizitza guzian erretzailea izaki. Hala ere, 82 urtez bizitu zen.



Sasuanen hirugarren bertso saila: POLAINENA

Ezkurrei gerta zaio
Aurten bein batian,
Elizaa zidoaielaik
Igande goizian,
Ustez ongi jantzirik
Zidoaien soñian;
Bidian oartu zen,
Polain bat oiñian.

Eskutan arturikan
Bere polain ori,
Egiten dio, bada,
Bere buruari.
Au duk ba deskuidoal
¿Zer gerta zait neri?
Me-samarra bide diet
Pantorrillo ori.

Gizon propie da-ta
Errespetokoa,
Ez ttiki t'ez aundi
Neurri onekoa;
Gizon hori izan laike
Nai bezalakoa (tankera onekoa)
Baldin pantorrillo ori
Ba-lu plantakoa.

Hogei ta amar botonez
Polaina loturik,
Zangoan paratu zun
Ongi amarraturik!
Elizera joan da
Polaina galdurik,
¡Ezkurak balentie
Pötzoloa bota dik!

(Bertso hauek Principe de Vianan, 1967ko urtarrilean atera ziren, 11 zenbakian)



Polaina zahar bat, 18 botonekoa



19 botonekoa

Aita Damaso Intza oso oker ibili zen Ezkurra delako hori nor eta nongoa izan zitekeen asmatu nahian.

Hemen ageri den Ezkurra delako horri, azkenean, antzeman diogu Orokietako *Apezeneko* nagusia izan zitekeela, Pedro Juan Ezkurra Azkue, Antonioren adin berekoa. Pedro Juan 1935. urtean hil zen 76 urtetan. Bertso hauek aurki, Auzan bizi zenean aterako zizkion Ziaurritzek. Beraz, hil baino askoz lehenagokoak ez daitezke izan, 1930-1935 urte tartekoak behar dute izan. Eta orokietarra behar duela izan zer dela eta? Ziaurritzek berak aditzera ematen du bertso honetan:

*Si quiere usted a Juarbe,
y sino a Illarregui.
Bide erdire etorri,
testigua karri,*

Beraz Auza eta Orokietarra artean, bide erdira dituzte bi herri hauek, Illarregi eta Suarbe.

Eta hori guzia borobiltzeko *Apezeneko* Euxebio Ezkurrari joan gatzazkio galdezka. Eta hara, nahiz bere aitatxi ez zuen ezagutu, jaio baino askoz ere lehenago hil baitzen hau, gogoan ditu aitatxiarenak diren entzundako bertso bakarren batzuk. Horien artean honako zatitxo hau, hain zuzen, gaur hona ekarri ditugun bertsoei erantzunaren parte bat. Zoriturrez, gainerakoa atzendua du Euxebiok, baina zati hau aski dugu guk pentsatutakoa baieztatzeko.

“Con veinticinco botones
polaina ha perdido.
En mi tiempo polaina no he perdido
Con lo que llevé a fuera a casa he venido”

Horrela ikasi dugu, batere ez genekiela, Pedro Juan Ezkurra Azkue ere bertsolaria genuela.

HIZTEGIA:

BEHIN-BEHINEAN: Provisionalmente

AITAGINARREBA, AMAGINARREBA: Suegro, suegra

SUHIA: yerno

BILOBA: nieto-nieta



TXURDAN



Elkano **anaiak**, elkarren aurkako partidaren zain

Ostitzen elkartu gara Sergio eta Anderrekin. Biak daude futbolari lotuta, baina modu ezberdinetan, izan ere Ander Huarte taldean aurrelaria da, eta 3. mailan jokatzeko du. Sergio ere 3. mailan ari da, baina ez jokalaria, marrazain lanetan baizik, baita epaile lanetan ere kategoria bat beherago. Oraindik ez dute izan elkarren arteko partidarik, baina litekeena da laster izatea, eta jakin nahi izan dugu egoera horrek zer ekarriko lukeen.

Ander, zu Huarte futbol taldeko aurrelaria zara, zer moduz ari zara 3. mailan?

ANDER: Duela gutxi hasi naiz berriz futbolekin, duela lau urte utzi bainuen. Alde batetik, pixka bat nekatuta nengoen futbolarekin, eta Madrilera joan nintzen, orduan, jokatzeari utzi nion. Utzi baino lehenago San Juanen eta Osasunan aritua nintzen, eta orain Huarten ari naiz.

Eta Sergio, zuk nola erabaki zenuen epaile izatea?

SERGIO: Ni Anderren partidak ikustera joaten nintzen, ez naiz sekula futbolekin aritu. Baina giroa gustatzen zitzaidan eta epaile izatearen kontua ere gustatzen zitzaidan. Duela 7 urte hasi nintzen epaile lanetan, eta pixkanaka mailaz igotzen joan naiz. Aurten marrazain gisa 3. mailara igotzea lortu dut, eta egia esateko oso pozik nago.

Eta epaile bezala zorrotza al zara?

SERGIO: Zorrotza izan beharra dago, noski. Baina hala ere jokalariekin hitz egitea gustatzen zait. Okerrena futbol zelaiaren kanpotik datorrena da, oihuak eta isekak, baina belarri batetik sartu eta bestetik atera, hori da horren aurkako soluzioa.

Aurten aukera dago elkarren arteko partida bat izateko, gustatuko litzaizueke?

ANDER: Politiki litzateke, eta ni aurrelaria naize-nez, elkarren ondoan izanen gineteke, Sergioki kontrolatuko ninduke.

SERGIO: Epaile eta marrazainok aukera dugu denboraldia hasi aurretik arazoak izanen ditugun taldeak kentzeko, baina nik Anderren partida batean lan egin nahi dut.

Txikitatik izan duzue "pikea"?

SERGIO: Txikitatik izan dugu baloiren bat etxean, eta berak irabazten zidan beti.

Anderren jokoz kanpo zalantzazko bat izango balitz, zer?

SERGIO: Zorrotza izango naiz, beste taldekoek jakiten badute anaiak garela eta bere alde egin dudala, komerik....

Eta gurasoak, noren alde?

ANDER: Beti etorri izan dira partidak ikustera. Haien zat okerrena Sergioren kontrako isekak dira, gainontzekoan biok animatzen gaituzte.



Moko

Indalezio Bizkarrondo, *Bilintx*, Donostiako bertsolaria eta poeta izan zen. Poeta erromantikoa, 1831. urtean jaioa. Moko deitzen zioten



Arrautzak eta urdaia. Aunitzentzat zer jaki hoberik egunero jan balezate!!!

Titikitan izan zuen istripu bat zela eta, aurpegia erabat desitxuratua gelditu zitzaion, mutur luzexka gelditu zitzaion. Horregatik *Moko* ezi-zena. Jakin edo ez jakin, moko hegaztien *pikoa* da, hau da, *piko* eta *moko* gauza bera dira.

Hirugarren karlista gerra denboran hil zen. 1875. urtean karlistek bonbardatu zuten Donostia eta granada bat etxeko leihotik sartu eta gure Bilintx harrapatu zuen. Zaurien ondorioz sei hilabeteren buruan hil zen. 1876ko urtarrilaren 20a zen.

Donostia parera atera denez, aipatu gabe ezin utzi Donostian izan direla aspalditik jatetxe famatuak, mokofinen biltoki. Janari bikainen bila ibiltzen dena da *mokofina*, tripazaia edo. Bai, tripazaia, baina esanahi era dotorean.

Bai *moko* eta bai *mokofin* hitzak gaztettoa nintzela ikasi nituen Egan aldizkarian.

Eta hitz horiek liburuetan ikasi baino lehen, besterik ere ikasi genuen, haserreka edo *mokoka* ibiltzea zer den. Aita Baztangoa genuen eta hark anitzetan ibiltzen zuen: *Beti mokoka ibiltzen zarete! Mokokaldi ederra izan da gaurko batzarrean!* Eta ez dago Baztana joan beharrik, Ultzaman ere euskaldun zahar eta onek ere badakite hitz hau.

Eta oraindik lehenago, haur ginenean, herriko bazter guztiak korritzen genituen eta etxe askotako

xoko guziak miatzen, behiti eta sabai, txabola eta oilategi. Eta oilategietan baita oiloen ipurdiak ere. Oilategian erruten ari zen oiloa hartu eta ipurdia ukitu edo behatza sartuko genion ea arrautza hurbil zuen. Eta erruteko puntuan baldin bazegoen, xuri puntua ikusten zitzaiola edo, hala esaten genuen.

-*Moko-mokoan zaukek*, alegia, punta-puntan zeukala esateko.

Moko-luze edo hitzontzi ari naiz gaurko ARDO FREXKOAN. Behin behar eta oraingoan herriko ostatuaz at beste norabait joan beharko dugu oso mokofin baikabiltza aurtengo Eguberrietan. Hori bai, ardo frexkoa ez dadila falta.

OHARRA: Zuk ere *Bilintx* ezagutzen duzu. Hona hemen *Bilintxen* kantu batzuen izenak: "*Behin batean Loiolan*", "*Juana Bixenta Olabe*", "*Domingo Kanpaña*", "*Kontxesi*", "*Triste bizi naiz eta*" Horiek eta beste batzuk ere seguru ezagutzen dituzula.

HIZTEGIA:

JATETXEA: restaurante

ALDIZKARIA: revista

MOKOKALDIA: diskusioa

ERRUN: hau jakin beharreko hitza da, arrautza jarri ez da esaten: arrautzak errun, arrautza errun berria, etc.





BERRIKETAN

OIER ALTUNA, SUARBEOA, OSASUNA GENUINEKO KAPITAINA

"Esaten dute Espainiako liga dela munduko hoberena; bai, baina **Genuine** liga"

Duela 9 urte auto istripu larria izan zuen Oierrek futboleant entrenatzera zihoala. 4 hilabetez koman egon zen, baina bizirik ateratzea lortu zuen. Horrek ondorio fisikoak utzi zizkion, baina buelta eman eta Osasuna Genuine taldeko kapitaina da orain, bere pasioa berreskuratzea lortu du.

2008ko urtezahar eguna, nola oroitzen duzu?

Etetik goizeko 11:00etan atera nintzen Oberenarekin entrenatzera joateko. Ilarregiko lehenbiziko bihurgunean izan zen istripua, eta hortik aurrera ez naiz ezertaz oroitzen. Badakit kamioilari batek ikusi ninduela eta aitari abisua eman ziola. Helikopteroz eraman ninduten ospitalera eta 4 hilabete eman nituen koman.

4 hilabetez hil ala bizi egon ondoren, esnatu zinen.

Kontzientzia berreskuratzean ohe batean etzanda ikusi nuen nire burua, ezin mugitu. Pixagura nuen eta ezin mugitu. Orduan erabaki nuen, nire burugogortasunaz ohe hartatik altxatu behar nintzela, eta errehabilitazioarekin hasi nintzen.

Familiak eta lagunak susto ederra hartuko zuten, ezta?

Nirea baino handiagoa, ni ez bainintzen enteratu. Gurasoek bereziki oso gaizki pasatu zuten, oraindik ere kotxea hartzen dudana aldiro sermoia daukat etxean; baina, beno, kontuz ibilita ez dago arazorik.

Eta hemen zaude.

Hori da laburpena, denek esaten dutena. Askok esaten dute ulertzen nautela; baina, egia esan, nik bizitakoa zaila da ulertzen nire egoera berean egon gabe. Arrastoak ere geratu zitzaizkidan gorputzean eta hizkeran, eta gogorrena errehabilitazioa izan da niretzat.

Istripua baino lehen futbolaria zinen, eta berriz jokatzera lortu duzu.

Bai, futboleant jolastu nahi nuen berriz, eta Aspaceren bitartez talde batean hasi nintzen. Hasieran asko kostatzen zitzaidan ibiltzea, eta are gehiago korrika egitea, baina futboleant hasi nintzen eta egunero asko hobetzen nuela ohartzen nintzen; horrek indarra eman zidan. Gero Aspaceren bidez Osasunaren proiektu berria ezagutu nuen, ezgaitasun intelektuala dutenendako taldea, Osasuna Genuine. Istripuaren ondorioz talde honetan sartzeko aukera izan nuen eta kapitain egin ninduten.

Zer nolako esperientzia izan da?

Oso gustura ari naiz, gustatzen zaidana egiten dut eta taldekideen artean ere oso giro polita dago. Estatu mailako Genuine ligan parte hartzen dugu, eta oso polita da, oso garbia, ez dago harrokeriarik, dena errespetuz egiten da... esaten dute munduko ligarik hoberena espainiarra dela, eta espainiarra bai, baina Genuine!

Sadarren Osasuna taldearekin zelaira ateratzeko aukera izan zenuten.

Esperientzia oso politak bizitzeko aukera eman dizkit Osasuna Genuinek. Sadarren osasunarekin zelairatzea, musika estudio batean abesti bat grabatzea, Osasunako kapitainekin harremana egitea, eta bereziki ilusio handia egiten zidan Oier Sanjurjo ezagutzea, biok gara kapitainak eta biok dugu izen bera. Seguruenik istripua baino lehengo bizitzarekin ez nuke aukera hau biziko, eta behintzat pozak ere eman dizkit.

Arazorik baduzu orain istripuak utzitako arrastoekin?

Hizkerarekin kriston konplexua daukat. Ezin dut lehen bezala hitz egin, mantsoago egiten dut. Jende ezezagunak mozkor nagoela pentsatzen du askotan, eta baita Guardia Zibilak ere. Azken finean, ezin diozu mundu guztiari zure bizitza kontatu... Eta orekarekin ere arazoren bat daukat. Baina ezagutzen dudana jendearekin ederki nago, familiarekin, lagunekin... lagunak ezin dira sekula galdu.





Musika **zuzenean** Aizarozko ostatuan

Beste batzuetan ere egin bezala, zuzene-ko kontzertu bat izan zuten urtarilaren 20an Aizarozko ostatuan.

Joan zen urtean kontzertu ugari izan zituzten, eta beste hainbat ekitaldi, batzuk kultur etxean eta besteak ostatuan. Oraingoan, joan zen urtean egondako batekin errepikatzea erabaki dute.

Jorge Sanchez bakarlaria da bera, bere azken diska aurkeztera etorri zena, "El grito de las flores". Eta berarekin batera Eva Niño biolontxolea ere etorri zen.

Kontzertuan, diskari izena ematen dion lorea presente izan zuten. Izan ere, diskari izena jartzea kosta egin zitzaion, baina bidaia batean lore hori aurkitu eta izena horrela jartzea erabaki zuen; lilia da lore hori. Musika eta poesiaren bidez ederki gozatu zuten berataratutakoek.

Bueltan dira **"Bardoak"**



Nafarroako bardoak indartsu itzuli dira aurten. "Bardoak", bi urtean behin Nafarroan egiten den bertso ekimena da, taldeka egiten den txapelketa. Azken hiru edizioetako arrakastaren ostean formatua errepikatzea erabaki dute, eta otsailan hasiko dira bertso saioekin, gehienak merenduaz lagunduta.

Aurtengoan ordea, ez dugu eskualdeko ordezkariarik izanen, ezta bertso-saiorik ere momentuz. Hala ere, azken saioak non izanen diren erabaki beharrean daude oraindik. Hasiera eta amaiera behintzat bada-kizkigu, Beran hasi eta Lekunberrin amaituko baita.

Tartean, Iruñea, Leitza, Barañain, Lesaka, Otsagi, Lakuntza, Errazkin, Altsasu, Lizarra, Elgorriaga eta Garralda bisitatuko dituzte Bardoek. Jardunaldi horien ostean hasiko da bigarren itzulia, eta finala martxoaren 24an izanen da Lekunberrin.

Osotara 23 bertso-saio egingen dituzte ia bi hilabete-tan, eta 74 bertsolari arituko dira 16 taldetan banatuta. Taldeak ere Nafarroako hainbat lekutatik sortu dira: Bera, Sakana, Larraun-Araitx, Leitza, Iruñea, Pirinioak, Barañain, Lesaka, Malerreka, Baztan.... Eta helburu nagusia, lekuan lekuko bertso eskolak bultzatzea.

“Orain ez nintzateke **abeltzaintzan** 0-tik hasiko”

Familiaren ofizioa jarraitu duen bakarra izan da 4 ahizpen artean. Gazte hasi zen abeltzaintzan, baina ez da bere lan bakarra, Gerendiaingo zahar etxean ere aritzen delako lanean. Eltsoko ukuiluan bildu gara Leyrerekin bere lanaz solas egiteko.



Noiz hasi zinen abeltzaintzan lanean?

19 urterekin hasi nintzen. Familia negozioa da, eta lau ahizpetatik ni izan naiz negozioa jarraitu duen bakarra, besteek lagundu egiten dute, baina lan formala ez. Instalazioak, makinak eta abar gurasoenak erabiltzen ditut, baina nik nireazienda propioa daukat -40 behi piriniar- eta beraz, nire soldata propioa.

Beste ahizpek ez dute sartu nahi izan, zuk zergatik erabaki duzu baietz?

Gustuko ez baduzu zaila da honetan sartzea. Nik txikitatik nahiko argi nuen abeltzain izan nahi nuela, ikasketak, gainera ez nituen oso gustuko, eta ez nien esfortzu gehiegirik eskaintzen. 16 urte nituelarik abeltzaintza gradua ikasi nuen, hori ikasten bai ikaragarri gustura aritu nintzela! Gradua amaitzean praktikak beste ukuilu batean egin eta ondoren hasi nintzen ni aitaren instalazioak erabiliz.

Ez da zure lan bakarra ordea...

Ez, Gerendiaingo zahar etxeko lanarekin uztartzen dut. Egoera zaila bizi dugu abeltzaintzan, zaila da horren bidez soilik bizitzea.

Denbora askorik ez duzu izanen, jairik baduzu?

Neguan larriago nabil, azienda ukuiluan dudalako eta horrek lan gehiago eskatzen du garbiketan, jaten ematen... Udaberri-uda partean lasaia ibiltzen naiz, baina hala ere asteburuak hartu behar izaten

ditutazienda zelaietan bisitatzeko, jaten eman, lekuz aldatu... Eguberrietan parranda bat bera ere ez dut egin, goizeko 6etan esnatzen bainaiz.

Esan duzu egoera zaila bizi duela abeltzaintzak.

Bai, produktuak ez du merezi duen balioa. Gainera, harategietan behia eta txahala garestia da eta jendeak oilasko, zerri edo untxi gehiago erosten du krisiaren eraginez. Bestalde, haragi-behiekin ez dugu hilabeteko soldatarik, hiltzen ditudan txahalen arabera jasotzen dut dirua, eta hori behi eta txahalen zaintzaren arabera da; gainera, baten bat hiltzen bazaigu galera handia da. “Papeleoarekin” ere geroz eta zailtasun gehiago ditugu eta Europar Batasunaren Nekazaritza Politikatik jasotzeko bete beharreko baldintzekin.

Bizitzeko adina behintzat ematen du?

Ematen du, baina berez ez da errentagarria. Gure lan orduen ordainsaria kalkulatu bagenu ikaragarria litzateke gure lan orduen ordeztasun dugun dirua. Nik aurrera egin ahal izan dut gurasoek instalazioak eginda zituztelako, bestela, ni ez nintzateke abeltzaintzan 0-tik hasiko.

Emakumeak, gazteak eta abeltzainak gutxi zarete...

Bai, emakume gutxi gara, eta gazteak ere gutxiago. Gazteoi erraztasun gutxi ari zaizkigu jartzen.

ZOZKETA MUNDIALA 2018

132 sari banatu ditugu

Denak hona ezin ekarri. Horietako zenbait hemen dituzue:



Hemen Iker Uribe, irurtzundarra, tokatu zaion altzarian jarrita (Irurtzundarrak zorteko daude. Iaz bi sari berezietako bat eraman zuten eta aurten biak)

Simon Juanbeltz eta Jexux Mari Arano, Berueteko Seanbenekoa eta Mittonekoa. Lehenari 3 eguneko bidaia tokatu zaio eta bigarrenari zerri bat, aste honetan berean hilen duena.



Enrique Olkotz, lanztarra, Iruñean harrapatu genuen (txerria hil edo ez hil, oraindik ere zalantzan dago)



Itsasoko Etxeberrikoak. Iruñera futbol partida jokatzera joan aurrettoan harrapatu ditugu etxe atarian. Haritz, Iker eta Ekhiñe Ansorena Astitz. Ikerri ezkurreen hazitako zerria tokatu zaio. Eta Ekhiñeri ere bai zerbait.

Edurne Gerendiain, Lizasoko Domingonekoa, axuria egokitu zaio. Etxean ere badituzte ba! Berriz ere artaldea handiko dute!



Idoia laben, Auzakoa. Bere bi alabekin, Saioa eta Nahia Gelbentzu laben. Axuria egokitu zaio eta amaginarrebari bi bazkari. Sariak trukatzeko asmotan dira noski.





Pakita Garro Iribarren, Erbitiko Garroren etxekoa. Ioritz bere bilobarekin pozik. Ioritz du biloba hurbilena eta lagunduko dio txerri solomoak jaten.

Haritz Garbisu Alberdi. Hor ditu erne-erneak, andrea, Kizkitza eta lera, alaba. Denak ere sedail sedailak. Ez dakit ba txerriak oso komenigarria duten sasoiari eusteko!



Gure esku-langileek ere, inoiz baino gauza politagoak eskaini dizkigute. Hona hemen Martzelo Beloki etxalekuarrak jarri dituen bi sarietako bat: erloju dotorea. Pilar Astitz Etxeberriari egokitu zaio, aspaldian Olazagutian bizi den etxalekuarrari.



Urtebetetzeak



BEÑAT



ARKAITZ



BELATE



GARAZI



AIMAR



AURITZ



JULEN



OLATZ



IRATI



LEIRE

Ultzamako San Silvestre lasterketak **25 urte**

Urtea amaitzeko modurik onena da askorentzat, eta aurtengoan eguraldia aurka izan badugu ere, dozenaka izan ziren Lizason korrika egiteko elkartu zirenak.

Badira 25 urte Ultzamako San Silvestre edo Silbestre Deuna lasterketa antolatzen dela. Urteko azken eguneko lasterketa hau oso ospetsu egin da hainbat lekutan: Iruñean, Lerinen, Vallecasen... baina gurea ere ohitura bilakatu da.

Joan zen urtean aipatu genuen, seguruenik ordura arteko lasterketarik politena izan zena. Ibilbidea eta irteera lekua aldatu ziren, eta Lizasoko erdigunera eraman zen lasterketa. Iazko esperientzia hori errepikatu egin da aurten ere, eta harrera polita izan du.

Aurreko urteetan bezala hainbat maila izan genituen aurten ere: 6-7 urte bitartekoak, 8-9, 10-11, 12-15 eta maila absolutua, distantzia ezberdineko bi lasterketa eginez, 4km-koa eta 8koa.

Egunaren alderik txarrena eguraldia izan zen. Goizean ateri eutsi zion arren, arratsaldea euritsu izan genuen, eta euripean hasi eta bukatu ziren lasterketa guztiak. Hala ere, lasterkari ugari izan ziren maila guztietan, eta merezitako ospakizuna izan zen lasterketaren zilarrezko ezteietan.

Euriaren eraginez, emaitzen paper guztiak izorratu egin ziren, eta lasterketa guztien emaitzarik ez daukagu, helduen lasterketetakoak baino ez, eta hauetan lehenengo 9 sailkatuenak. Eta deus baino gehiago denez, helduen lasterketaren sailkapena jarri dugu hemen, emakumezkoen eta gizonezkoen sailkapenak banatu gabe, hori ere ez baitago. Baina beti esaten den bezala, parte-hartzea da politena, emaitzei kasu gehiegirik egin gabe.



HELDUEN SAILKAPEN OROKORRA

8km-ko lasterketa

1-	IMANOL LUJANBIO	27:47
2-	IÑIGO IRIBARREN	28:17
3-	DANI IPARRAGIRRE	28:34
4-	ANDREA MORENO	29:19
5-	MARTIN	29:32
6-	RIKARDO ANZTEGI	30:30
7-	JAVIER IPARRAGIRRE	31:01
8-	IMANOL JAKA	31:42
9-	MARTIN AZPILIKUETA	31:52

4km-ko lasterketa

1-	JON ZABALA	13:08
2-	UNAI ESPINAL	14:03
3-	MARKEL CIRIZA	15:03
4-	SANTI ESPINAL	15:54
5-	BEÑAT ASTRAIN	16:13
6-	JAVIER CIRIZA	17:21
7-	AITOR ELIZONDO	17:22
8-	OIER URRIZA	17:25
9-	ODEI URRIZA	17:40



2017ko AZAROA

Gure alderdian azaroan izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

BASABURUA

ARRARATS

Suar Flores Ojer, Alain eta Adrianaren semea, Arrarasko Yurtan sortu zen 2017ko azaroaren 2an.



Ezkontzak:

ANUE

ETULAIN

Raul Pascal Egozkue eta Cristina Altuna Otxotorena. 2017ko azaroaren 4an ezkondu ziren. Etulainen biziko dira.



MILA ZORION EZKONBERRIEI

Heriotzak:

ANUE

OLAGUE

Ramon Otondo Gurbindo, azaroaren 15ean hil zen 76 urtetan.

ODIETA

LATASA

Luis Zenotz Aldaia, azaroaren 25ean, Karakoetxeko semea.

BASABURUA

JAUNTSARATS

Marcelo Azpiroz Rekondo, azaroaren 16an, Martzeloneko nagusia.

ULTZAMA

LARRAINTZAR

Ruben Anzitzu Ariztegi, azaroaren 18an, 32 urtetan.

LANTZ

Jesus Oiaregi Goñi, azaroaren 22an, Errotazarreko nagusia.

GURE OROIMENEAN IZANEN ZARETE

OHARRA: Urriko datuetan heriotza bat jartzea atzendu zitzaigun, eta honako hau da:

URRITZA

Josefa Fernandez Castanedo, urriaren 30ean hil zen, Karakoetxeko etxekoandre zaharra.



Martzelo



Jesus Oiaregi



Ramontxo



Pepita



NEUMÁTICOS BETELU

Juan Alonso Ortiz

Tailer mugikorra

Pneumatikoen aldaketa

Zulaturako pneumatikoen konponketa

Erdiko karrika, 8A

Aizarotz (Baasaburua)

  info@neumaticosbetelu.es
646 47 41 66

-Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
pneumatikoak konpontzera
-Kostu gehigarriarik gabe kontsultatu prezioak
-Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR

ELEKTRIZITATEA

 **629 31 53 32 - 722 766 835**

 **Lizaso**

 **karikolaregoitz@gmail.com**



DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA

TEL.: 678 623866

argapin@hotmail.com

ZIAURRITZ

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

